



Soldata murrizketak - Lan sarien erreklamazioa

Dagoeneko urtebetea iragan da itunpeko ikastetxetako langileei lansari-murrizketak ezarri zizkigutenetik. Harrez geroztik auzi honek bide luzea egin du.

Dakizuenez, STEE-EILASek erreklamazio-kanpaina abian jarri zuen, 2009ko Lan Hitzarmenean adostutakoa bete zezaten aldarrikatuz. Aldi berean STEE-EILAS-ek epaitegietara jo zuen eta gatazka-kolektiboa ipini zuen lansari-taulak ez betetzegatik.

EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiko epaiek sindikatuei arrazoia eman zieten eta enpresaburuek lan hitzarmenak betetzeko beharra dutela nabarmentzen dute eta 2010eko irailetik hona euren langileen soldatei deskontatutako diru kopurua itzuli beharko lukete. Aldi berean, magistratuek CCOO eta LAB-ek Hezkuntza Sailaren kontrari jarritako demanda ez onartzea erabaki dute, eta edonolako erantzukizunetatik salbuesten dute.

Patronalek euren desadostasuna adierazi zuten eta helegiteak ipini zituzten Tribunal Gorenean. Oraingoz ez dago behin betiko epairik, eta , badirudi, luzera joko duela.

Bien bitartean STEE-EILASek erreklamazio-kanpainarekin jarraitu du eta jarraitzeko asmoa daukagu. Banakako erreklamazioak egitea langileak daukan eskubidea da eta ez gaude prest, presioak eta ezkutuko akordioak izan arren, bide honi uko egiteko. STEE-EILASen pentsatzen dugu ekimen hau beharrezkoa dela auzi honetan dauden aldeek dagokien ardura beregana dezaten.

Zure erreklamazioa egin ez baduzu, STEE-EILASek epealdi berria zabaltzen du urria amaitu bitartean eta beraren zerbitzu juridikoen bidez zure demanda bideratzeko aukera eskaintzen dizu. Erreklamazioak banakakoak izan arren, batuko ditugu ikastetxez ikastetxe espediente bakar bat tramitatzeko. Tramitazio hori dohainik da afiliatuentzat; gainontzekoek zerbitzua ordainduta egin ahal izango dute. Gogoratu nahi dugu erreklamazioa edozein itunpeko ikastetxetako (ikastolakoak barne) kaltetuko langileak ipini dezakeela.

Zalantzarik izanez gero dudarik ez izan kontaktuan jartzeko gure ordezkari sindikalekin ala egoitzekin.

Argibideak ematen jarraituko dugu.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org



Recortes salariales - Reclamación de cantidades

Ya se ha cumplido 1 año desde que a los trabajadores y trabajadoras de la enseñanza privada concertada nos empezaron a aplicar los recortes salariales. A lo largo de este año han ocurrido muchas cosas.

STEE-EILAS inició una campaña de reclamaciones individuales a las empresas, exigiendo que se nos respetase lo acordado en el Convenio 2009. Al mismo tiempo planteó conflicto colectivo en el sector por este incumplimiento de las tablas salariales .

Las sentencias del TSPV nos dieron la razón a los sindicatos que defendíamos la obligación de las empresas educativas de abonar a sus trabajadores/as las retribuciones íntegras, pactadas en el Convenio de 2009. Pero igualmente rechazó la petición que habían hecho CCOO y LAB para que la Administración respondiera subsidiariamente ya que los Convenios vigentes no regulan ninguna vinculación entre salarios y módulo de financiación de la administración.

Las organizaciones patronales mostraron su desacuerdo con las sentencias y presentaron recursos en el Tribunal Supremo. Por ahora no ha habido ninguna sentencia definitiva y parece que éstas tardarán en llegar.

Mientras tanto STEE-EILAS ha seguido con la campaña de reclamación de cantidades y tiene la intención de continuar con ella. Este es un derecho que tenemos los trabajadores y trabajadoras y estamos dispuest@s a ejercerlo aunque haya presiones o acuerdos secretos que quieran impedirlo. STEE-EILAS piensa que esta iniciativa es indispensable para que todas las partes implicadas en este asunto asuman la responsabilidad que les corresponde.

Si todavía no has presentado tu reclamación, STEE-EILAS abre un nuevo periodo para realizar nuevas reclamaciones durante el mes de octubre y así te ofrece la posibilidad de canalizar tu demanda a través de sus servicios jurídicos. Aunque éstas sean individuales, las unificaremos para tramitar un único expediente por centro. Dicha tramitación es gratuita para el personal afiliado; el resto podrá hacerlo pagando el servicio. Por otra parte queremos recordar que esta reclamación la puede realizar cualquier trabajador o trabajadora afectada de los centros privados concertados, incluidas las ikastolas.

No dudéis en poneros en contacto con las sedes o con nuestros representantes sindicales para cualquier duda sobre el particular.

Os mantendremos informados/as.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org